



**AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

**OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA,  
SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZABATZORDEAREN  
IRIZPENA**

**2017 URTALDIRAKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA  
ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA  
FISKALEN ALDAKETA**


**1.- AURREKARIAK**

1.1 Apirilaren 20an Aldundiak Udal guztiei honako jakinarazpena bidali zigun honako pauso hauek eskatuz:

- Balio katastralaren ponentzi berriak onartzea
- OHZren tipo berriak kalkulatzeko
- Beharrezkoak diren arau aldaketak tramitatzea eta onartzea
- Jakinarazpenak osatzea

Hau guztia kontuan hartuta, berrikusitako balio katastralek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eragingo dituzte ondorioak.

1.2 2016ko maiatzaren 5ean Alkateak Aldundiaren gutuna jasotzen du Egutegia zehaztuz eta Azkoitiko balio aldaketan berri emanez.



Javier Zubizarreta

Azkoitiko Udaleko alkate jaun/andrea

Javier adiskidea:

Joan den apirilaren 28an izan genuen bileraren jarraipen gisa, idatzi honen bidez aurreratu nahi dizut zer datu ondorioztatuko liratekeen udal horretako hiritar higiezinaren erroldan egiten ari den berrikuspen katastraletik, indarrean dauden zerga tasak aplikatuta.

Zerga honek modu berezian eragiten duenez ukitutako pertsonak ekitatez tratatzeko eran eta udalak beren esku izan ditzakeen sarreretan, uste dugu garrantzi handikoa dela erakundeek batera jardutea.

Aide horretatik, udalei Balorazio Katastraleko Ponentzien proposamenak helarazi zaizkie, eta epea zabaldu da alegazioak aurkeztu ditzaten, Diputatuen Kontseiluak ponentziak onartu aurretik. Epea datorren maiatzaren 31ean amaituko denez, azpimarratu nahi dut alegazioak aurkeztekotan, garaiz bidali behar dituzuela.


Era berean, gogorarazi nahi dizuet zer data errespetatu behar diren berrikusitako balio katastralek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izan dezaten eragina:

- 2017an aplikatuko diren behin betiko zerga tasak Udal Zergen Zerbitzuari jakinaraztea: ekainaren 30a baino lehen. Helburua da tasa horiek komunikazioetan eta jakinarazpenetan agertzea.
- Alkateak eta Ogasun eta Finantza Departamentuak batera izenpetzea zergaren subjektu pasibo diren pertsona eta entitateei berrikuspen katastralari buruz eta jakinarazpena eskura izateari buruz bidali-zaien komunikazioa: 2016ko ekainaren 30a.

2016 tipoa	2016 balioa	2016 kuota	2017 balioa	2017 kuota	%	% osoa
0,22870	668.963.412,29	1.446.854,82	640.688.158,14	1.378.125,40	95,77	
0,49020	103.349.595,53	501.550,65	86.690.429,35	420.240,54	83,88	94,18

Adeitasunez

Donostia, 2016ko maiatzaren 3a





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

**1.3.**Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordean, 2016ko ekainaren 8an ospatu zen horretan, besteak beste, 2017rako ordenantza fiskalen irizpideak eman ziren

Gai honi buruz Ogasunean hau aipatu zen:

*Ana Azkoitia: Diputación realizó la última revisión catastral en el año 2001. Según la ley se debe hacer cada 8 años.*

*Miguel Reimundez: no se hizo en su día porque fiscalmente podía resultar negativa, pues el valor de la vivienda se había reducido en un 20%.*

*Ana Azkoitia: Han realizado ahora este proceso. En Azkoitia la bajada en IBI industrial es de 16% y en Urbana de 4,23%. Diputación nos dice que hay que decidir ahora el tipo para que ellos en septiembre realicen las notificaciones. Para la semana que viene cada uno podéis traer vuestro planteamiento. A Azkoitia esta revisión nos supone una bajada en recaudación de 150.000 €.*

*Guk, gure proposamenean irizpide hauek erabili ditugu:*

*-Industria arloan: orain arte bezela 20 Udalerriko taulan erdialdean egotea da. Helburu honekin %3,73 ko igoera proposatzen da tipoan eta honek zergabilketa 65.000 € tara murrizten du, beti ere kontuan hartuz Industrialean dagoen zuloa 81.000 €koa dela. Hala ere hau baino igoera handiago bat proposatzen dugu zulo hau gutxitu dadin. Urtero balio katastralak igo egiten dira.*

*Miguel: a mí me gustaría tener los datos cruzados con los de 2001.*

*Ana Azkoitia: Lo que Diputación nos envía son los datos comparando 2016 y 2017 con los nuevos valores.*

*En suelo urbano sí estamos en la mitad de la tabla comparativa de municipios, pero tenemos margen pues aunque se incremente un 2% pasaríamos a la posición 8 o 9.*

*Con estas propuestas la recaudación se reduciría de 150.000 a 90.000 €.*

*Javier Zubizarreta: Hay que tener en cuenta que en suelo urbano hay zonas que sí han subido.*

*Miguel: Lo preocupante es la industrial*

*Javier: pero ahí estamos bien colocados. Tenemos margen.*

*Ana Azkoitia: yo personalmente veo que tenemos más margen en el industrial porque la bajada del valor ha sido tan grande que aunque se incremente el tipo únicamente se sube el recibo a unos pocos contribuyentes.*

**1.4.**Ogasun, langile, barne antolamendu eta kontratazioaren batzordean, 2016ko ekainaren 16an ospatu zen horretan eta 2017rako Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskalen irizpenak onartu ziren .

## **OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK**

### **1.- ORDENANTZA FISKALA**

Gipuzkoako Toki Ogasunein buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalerriei dagokiela, Foru Arau honek ezarritakoaren esparruan, bere zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta ekintza horiek egiterakoan ez dira kaltetuko udal zergak arautzen dituzten foru arauetan eta horiek garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan ezartzen diren espezialitateak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hau garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

Beren ordenantza fiskalen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek, aurreko atalean aipatzen den araudia bakoitzaren barne antolamenduaren eta funtzionamenduaren arabera egokitu ahal izango dute, eta egokitzapen hori ezingo da araudi horretan jasotako eduki materialaren aurkakoa izan.



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

**2.- ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:**

Ordenantza fiskalek, gutxienez, ondokoa jasoko dute:

A/ Egintza ezargarri, subjektu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributu kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena.

B/ Aitorpen eta sarrera erregimenak.

C/ Bere ezarpenaren onespén eta hasiera datak.

Ordenantza Fiskal hauen onespenerako akordioak, dagozkien tributuak ezartzeko akordioekin batera hartu beharko dira.

Aipatu ordenantzak aldatzeko akordioek, ukituriko arauen idazketa berria, beren onespén datak eta beren ezarpen hasiera jaso beharko dituzte.

3.- 2017ko Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskalazterketa ekonomikoa

**ZERGEN AZTERKETA 2017. URTERAKO**

**4.1. OHZ**

4.1.1.OHZ ri buruz Kontuhartzaileak honako txostena egin du:

2017.URTEKO ORDENANTZAK

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

2016.urterako honako zerga tasa hauek onartu zituen Azkoitiko Udalak:

Ehuneko 0,22870 bizitegi-izaerako hiri-ondasunentzat  
Ehuneko 0,49020 industria-izaerako hiri ondasunentzat.

2017. urterako Foru Aldundiak hiritar higiezinaren erroldan berrikuspen katastral prozedura hasi du. Helburu honekin balorazio katastraleko POnentzien proposamenak helarazi dizkigu Aldundiak eta epea zabaldu du alegazioak aurkeztu ditzagun. Epe hau maiatzaren 31an amaitu da eta Azkoitiko Udaleko Bulego teknikoko arduradunak Ponentzi berriak aztertu eta ontzat eman ditu. Honez, Azkoitiko Udalak ez du alegaziorik aurkeztu balorazio teknikoei.

Honez gain Aldundiak helarazi du 2017an aplikatuko diren behin betiko zerga tasak Udal Zergen Zerbitzuari jakinaraztea ekainaren 30a baino lehen. Helburua omen da tasa horiek komunikazioetan eta jakinarazpenetan agertzea.

Helburu hau betetzeko asmoz Ogasun batzordeak ekaineko Bilkura osoan aztertuko den irizpena eman beharko du 2017rako bizitegi eta industria izaerako hiri ondasunentzat tipoa onartuz, honek guztiak sortzen dituen kezkak eta arazoak kontuan hartuz.

Urtero tipoa Urrian onartzen da eta horretarako Azkoitiak urtetan erabili izan ohi duen irizpidea erabiltzen du zergetan, hau da, ezaugarri antzekoak dituen beste 20 Udalerriekin konparatzen ditu tipook eta taulan erdialdean egotea du helburutzat. Honez, Azkoitiaren presio fiskala balio absolutuetan 20 Udalerri hauen erdialdean dago.

20 Udalerrien zerrenda atxikitzen da ondoren, beraien tipook zehaztuz:

2016			
HERRIA	OHZ BIZITEGI	HERRIA	OHZ INDUSTRIA
AZPEITIA	0,29230	BEASAIN	0,60000



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

TOLOSA	0,28280	ORDIZIA	0,60000
LEGAZPI	0,25900	PASAIA	0,60000
PASAIA	0,25670	HONDARRABIA	0,57510
HONDARRABI.	0,25180	LEGAZPI	0,55000
ORDIZIA	0,25000	TOLOSA	0,54950
DEBA	0,24500	AZPEITIA	0,51931
ELGOIBAR	0,23470	ZUMARRAGA	0,51100
OÑATI	0,23020	ARETXABALETA	0,51000
<b>AZKOITIA</b>	<b>0,22870</b>	USURBIL	0,50850
BEASAIN	0,21830	DEBA	0,49700
ZUMAIA	0,21210	<b>AZKOITIA</b>	<b>0,49020</b>
USURBIL	0,21080	HERNANI	0,48860
ARETXABAL.	0,20740	OIARTZUN	0,48590
URRETXU	0,20500	ANDOAIN	0,47809
OIARTZUN	0,20340	ZUMAIA	0,46980
ZUMARRAGA	0,20190	OÑATI	0,41475
ANDOAIN	0,20110	BERGARA	0,40710
HERNANI	0,19400	ELGOIBAR	0,39070
BERGARA	0,18640	URRETXU	0,38330

2017. urtera begira ponentzi proposamen berri hauek direla medio oso egoera ezberdinak sortu ditu Udalerrietan. kasu askotan industria izaerako baloreak dexente jaitsi dira, Azkoitiaren kasuan bezela, baina bizitegi izaerako hiri ondasunen balioak Azkoitiaren antzeko herri batzuetan igo egin dira eta egoera hau Azkoitiarekin alderatuz oso desberdina denez ez jakintasuna dago une honetan tipoarekin zer edo zer onartuko duen Udalerri bakoitzak.

UDALERRIAK	INDUSTRIALA	URBANA
AZKOITIA	-16,21%	-4,68%
AZPEITIA	-15%	-5%
ZUMAIA	-20%	
OÑATI	-25%	
DEBA GOIENA	Jeitsiera fuerteak	
ZUMARRAGA	-10%	
ELGOIBAR	-5%	+100.000

**INDUSTRIA IZAERAKO HIRI ONDASUNEN TARIFAK**

Azkoitiaren kasuan, balorazio katastralaren ponentzia berriak 2017rako datu hauek laburbiltzen dituzte:

	V.C. 2016	V.C. 2017	Jaitsiera %	CUOTA 2016	CUOTA 2017	DIF.CUOTA 17-16	Jaitsiera %
zona 864 (BESA)	14.751.653,69	10.373.613,58	-29,68%	71.879,46	50.546,86	-21.332,60	-29,68%
zona 863 (Rugui)	152.729,33	107.401,86	-29,68%	748,68	526,48	-222,20	-29,68%
zona 861 (Xubi, industrialdea..)	18.988.468,93	16.968.129,50	-10,64%	92.367,04	82.675,34	-9.691,70	-10,49%
zona 812 (Gerdau..)	31.439.639,18	27.252.018,40	-13,32%	153.251,68	133.589,39	-19.662,29	-12,83%
zona 803 (Sammic, Rugui..)	13.437.086,99	10.770.658,70	-19,84%	65.218,25	52.340,43	-12.877,82	-19,75%
zona 801 (Zubiola,Aluminios Juin...)	24.580.017,41	21.218.607,37	-13,68%	120.491,25	101.170,60	-19.320,65	-16,03%
<b>GUZTIRA</b>	<b>103.349.595,53</b>	<b>86.690.429,41</b>	<b>-16,12%</b>	<b>501.550,65</b>	<b>420.240,54</b>	<b>81.310,11</b>	<b>-16,21%</b>



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

**Industria izaerako hiri ondasunen tarifak** aztertuz gero adierazi daiteke taulan erdiko mailan azpitik azaltzen direla tarifa hauek. Erdiko mailan Usurbilgo Udalerria legoke, %0,50850 tipoan. Tipo hau ezartzeko Azkoitiko %3,73an igo beharko litzateke

Kasu honetan balioak eta kuotak honela geldituko lirateke:

<b>TIPOA</b>	<b>BALIO KATASTRALA 2016</b>	<b>BALIO KATASTRALA 2017</b>	<b>KUOTA 2016</b>	<b>KUOTA 2017</b>	<b>Dif kuota 2017-2016</b>
<b>0,50850</b>	<b>103.349.595,53</b>	<b>86.690.429,35</b>	<b>501.550,65</b>	<b>436.104,97</b>	<b>-65.445,68</b>

Honez gain eta ikusirik balio katastralak guztiei oraindik ere portzentuarki asko jaisten zaiela eta kontuan hartuz ere beste Udalerrien asmoa bilketa mantentzeko tipoa igotzekotan direla, Azkoitiko bilketa maila mantendu eta presio fiskala adierazten duen taulan azken posizioetan ez topatzeko, Udal Gobernuak proposatzen du %0,50850 tipoari %8,47 gehitzea eta tipo berria 0,551569 izango litzateke.

Kasu honetan balioak eta kuotak honela geldituko lirateke eta Udalerrien konparaketa taulan 5. Mailan egongo ginateke:


<b>TIPOA</b>	<b>BALIO KATASTRALA 2016</b>	<b>BALIO KATASTRALA 2017</b>	<b>KUOTA 2016</b>	<b>KUOTA 2017</b>	<b>Dif kuota 2017-2016</b>
<b>0,50850</b>	<b>103.349.595,53</b>	<b>86.690.429,35</b>	<b>501.550,65</b>	<b>436.104,97</b>	<b>-65.445,68</b>
<b>0,55156</b>	<b>103.349.595,53</b>	<b>86.690.429,35</b>	<b>501.550,65</b>	<b>478.157,33</b>	<b>-23.393,32</b>

Azkenik esan beharra dago 2016ko bilketa mantentzeko tipo berria 2017an 0,5692 izan beharko litzateke eta hau 2016ko tipoarekin alderatuz gero %ko 16,12ko igoera edukiko luke.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIZITEGI IZAERAKO HIRI ONDASUNAK







AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ZONA	BALIO KATASTRALA 2016	KUOTA 2016	BALIO KATASTRALA 2017	KUOTA 2017	Dif kuota 2017-2016	Dif %
801	873.004,13	1.195,62	911.019,32	2.083,49	887,87	74,26%
403	1.325.255,53	2.042,21	1.709.291,36	2.678,32	636,11	31,15%
102	2.386.355,02	260,54	3.044.245,23	316,36	55,82	21,42%
603	913.491,20	2.077,55	994.635,44	2.274,84	197,29	9,50%
402	47.015.614,98	107.074,81	51.156.497,72	116.893,80	9.818,99	9,17%
14	28.309.598,39	54.973,38	31.153.386,89	57.427,33	2.453,95	4,46%
401	33.088.166,79	75.582,85	34.375.292,50	78.616,74	3.033,89	4,01%
551	18.406.000,93	42.094,34	19.097.756,67	43.676,64	1.582,30	3,76%
812	479.377,29	1.096,34	496.782,63	1.136,14	39,80	3,63%
13	24.511.941,15	55.581,08	25.249.328,16	57.401,06	1.819,98	3,27%
601	553.714,05	1.122,14	564.856,07	1.148,33	26,19	2,33%
502	26.407.628,06	55.785,05	28.041.832,31	56.939,81	1.154,76	2,07%
503	1.326.732,35	2.892,37	1.347.230,97	2.938,92	46,55	1,61%
602	2.176.646,30	3.155,71	2.167.053,80	3.145,64	-10,07	-0,32%
311	5.776.262,45	13.024,36	5.686.986,37	12.862,29	-162,07	-1,24%
101	29.815.382,60	67.509,55	28.991.142,55	65.847,63	-1.661,92	-2,46%
553	2.320.796,87	5.307,71	2.251.343,58	5.148,82	-158,89	-2,99%
201	20.355.829,37	44.547,54	18.830.276,01	43.064,85	-1.482,69	-3,33%
302	6.253.813,82	14.235,32	5.986.581,47	13.625,14	-610,18	-4,29%
202	74.990.498,81	171.294,04	71.428.946,73	163.357,85	-7.936,19	-4,63%
315	16.668.895,72	36.297,17	15.746.914,21	34.307,60	-1.989,57	-5,48%
900	30.733.417,99	64.727,69	29.256.433,51	61.037,62	-3.690,07	-5,70%
501	10.061.876,32	23.012,02	9.409.050,66	21.518,88	-1.493,14	-6,49%
11	75.797.606,86	162.385,13	70.226.407,15	150.423,68	-11.961,45	-7,37%
552	20.008.455,92	44.291,99	18.491.600,30	40.901,24	-3.390,75	-7,66%
312	14.387.269,51	30.697,57	12.787.813,79	27.930,79	-2.766,78	-9,01%
504	12.244.604,00	25.731,28	10.902.326,55	23.275,90	-2.455,38	-9,54%
203	44.512.945,58	99.454,68	40.015.732,01	89.419,91	-10.034,77	-10,09%
314	21.715.866,71	49.628,96	19.415.799,46	44.403,75	-5.225,21	-10,53%
301	4.592.273,60	3.371,89	4.530.772,91	3.007,74	-364,15	-10,80%
404	4.171.011,27	9.539,19	3.709.216,70	8.483,01	-1.056,18	-11,07%
303	3.134.015,25	6.210,12	2.668.839,71	5.409,20	-800,92	-12,90%
313	18.608.244,47	42.324,44	15.883.511,82	36.325,54	-5.998,90	-14,17%
204	50.894.279,55	114.479,54	41.715.780,29	93.731,91	-20.747,63	-18,12%
863	1.029.429,51	2.354,31	780.595,14	1.785,22	-569,09	-24,17%
554	1.329.269,56	3.040,05	992.959,19	2.270,89	-769,16	-25,30%
310	11.583.041,83	7.146,54	10.542.662,89	5.194,47	-1.952,07	-27,31%
604	204.798,55	309,74	127.286,07	192,51	-117,23	-37,85%
<b>GUZTIRA</b>	<b>668.963.412,29</b>	<b>1.445.854,82</b>	<b>640.688.188,14</b>	<b>1.380.203,86</b>	<b>-65.650,96</b>	<b>-4,54%</b>

Zergabilketa kasu honetan 67.729,42 € tan jaisten da orokorki baina eremu batzuetan jaitsiera proportzionalki %4a baino handiagoa izan da eta kontraz, beste eremu batzuetan baloreak igo egin dira.

Hau guztia gertatu da 2001. eta 2017. urteak alderatu direlako hirigintza arloaren arabera.





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Igo diren eremuak besteak beste hauek izan dira:

ZONA	BALIO KATASTRALA 2016	KUOTA 2016	BALIO KATASTRALA 2017	KUOTA 2017	Dif kuota 2017-2016	Dif %
402	47.015.614,98	107.074,81	51.156.497,72	116.893,80	9.818,99	9,17%
14	28.309.598,39	54.973,38	31.153.386,89	57.427,33	2.453,95	4,46%
401	33.088.166,79	75.582,85	34.375.292,50	78.616,74	3.033,89	4,01%
551	18.406.000,93	42.094,34	19.097.756,67	43.676,64	1.582,30	3,76%

(402) Altzibar etorbidea: 2001eko ponentzian balio gutxiko eremua zen eta gaur egun merkatuaren egoerari egokitu dira balioak.

(14) Aingeru kalea...: Oteiza frontoiak, urbanizazio berriak.. izan dira bitarte honetan eta horrek merkatuko balioak igoi ditu.

(401) Jausoro eta Burdinoletako Urbanizazioak: Lehen industria guneak ziren.

(551) Bizenta Juaristi: Urbanizazio berria egin da.

Jaitsi diren eremuak berriz, besteak beste, hauek izan dira:

ZONA	BALIO KATASTRALA 2016	KUOTA 2016	BALIO KATASTRALA 2017	KUOTA 2017	Dif kuota 2017-2016	Dif %
11	75.797.606,86	162.385,13	70.226.407,15	150.423,68	-11.961,45	-7,37%
552	20.008.455,92	44.291,99	18.491.600,30	40.901,24	-3.390,75	-7,66%
312	14.387.269,51	30.697,57	12.787.813,79	27.930,79	-2.766,78	-9,01%
504	12.244.604,00	25.731,28	10.902.326,55	23.275,90	-2.455,38	-9,54%
203	44.512.945,58	99.454,68	40.015.732,01	89.419,91	-10.034,77	-10,09%
314	21.715.866,71	49.628,96	19.415.799,46	44.403,75	-5.225,21	-10,53%
313	18.608.244,47	42.324,44	15.883.511,82	36.325,54	-5.998,90	-14,17%
204	50.894.279,55	114.479,54	41.715.780,29	93.731,91	-20.747,63	-18,12%

(11) Alde Zaharra: 2001eko ponentzian balorazio gehiena alde zaharrari eman zitzaion. Gaur egun merkatuan ez da hori gertatzen. Irisgarritasun arloan adibidez muga dexente daude eremu honetan.

(552) Auzmendi bidea: 2001. Urtean eremu honen garapena pil pilean zegoen. Orain merkatuaren arabera jarri dira bertako balorazioak.

(312) Bizenta Mogel kalea: Hemen ere merkatuaren araberako baloreak jarri dira.

(504) Igerilekuaren inguruko eremua da: eremu hau une honetan garatu gabe dago eta merkatuak baloreak jaitsi egin ditu.

(203) Lidl inguruko eremua: Hemengo garapena gelditu egin da eta une hoentan horrela dago.

(314) Donostia kalea, Azpeitia kalea... Merkatuak eremu hauetako baloreak jaitsi egin ditu

(313) Trenbidearen zumardia: Hau 2001. Urtean agian gainbaloratua zegoen eta orain errealitateari egokitu dira baloreak.

(204) Julio Urkixo Lidl aldera ematen duena: : Hau 2001. Urtean agian gainbaloratua zegoen eta orain errealitateari egokitu dira baloreak

Ikusirik balio katastralak orokorrean portzentuarki jaisten direla eta kontuan hartuz ere beste Udalerrien asmoa ere, bilketa mantentzeko, tipoa igotzekotan direla, urtero izaten den balio katastralaren igoera ezartzeko proposamena egin du Udala Gobernuak, hau da %2a.

Segidan balio katastralaren igoeraren taula atxikitzen da 2003.urteatik 2016.urtera.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

URTEA	PORTZENTAI
2003	2,00%
2004	2,00%
2005	2,00%
2006	2,00%
2007	2,00%
2008	2,00%
2009	2,00%
2010	0,00%
2011	2,00%
2012	2,00%
2013	2,00%
2014	1,00%
2015	0,00%
2016	1,00%

Ondorioz, %0,22870 tipoari %2a gehitzen bazaio, tipo berria 0,23327 izango litzateke.

Kasu honetan balioak eta kuotak honela geldituko lirateke eta Udalerrien konparaketa taulan 9. Mailan egongo ginateke:

	V.C. 2016	V.C. 2017	KUOTA 2016(hobariak barne)	KUOTA 2017 (hobariak barne)
<b>TIPOA 2017= TIPOA 2016(0,22870)</b>	668.963.412,29	640.688.158,14	1.445.854,82	1.378.125,40
<b>TIPOA 2017 (0,23327)IGOERA %2</b>	668.963.412,29	640.688.158,14	1.445.854,82	1.407.408,06

Azkenik esan beharra dago 2016ko bilketa mantentzeko tipo berria 2017an 0,23908 izan beharko litzateke eta hau 2016ko tipoarekin alderatuz gero %ko 4,54ko igoera edukiko luke. Tipo honekin bilketa 1.444.632,04 €koa litzateke.

## ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAZ LANDA-ONDASUNEI.

Kasu honetan, bizitegi izaerako hiri ondasunak bezela, balore katastralen igoera ezartzeko proposamena egin du Udal gobernuak, hau da, %2a

Azkoitian, 2016ko ekainaren 10ean

Kontuhartzaileak



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordeak, 2016ko ekainaren 16an eginiko bileran honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENENGOA.-** 2017RAKO Ordenantza fiskalak aldatzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraina edukiz, aldatutako testuak honela geratzen direlarik:

**2.- ONDASUN HIGIEZINEZ GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA**

**BI-** Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 4. Eta 5.artikuluak ezabatzen dira, errekarua eta errekaruaren salbuespenak jasotzen dituenak hain zuzen

**HIRU.-**Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren eranskinak tipo berriak jasotzen ditu era honetara:

ERANSKINA

Zerga-tasa hauek aplikatuko dizkie Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak hiri-ondasunei:

Ehuneko 0,2332 bizitegi-izaerako hiri-ondasunei.

Ehuneko 0,5516industria-izaerako hiri-ondasunei.

Ehuneko1,0437ko zerga-tasa aplikatuko die Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak landa-ondasunei.

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.1. artikuluan xedatutakoa betez, bitarteko ofizial honetan, Udaleko iragarki-taulan eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian iragarkiak argitaratuta, aipatutako artikuluan, 2. idatz-zatian, adierazitakoaren arabera, eta arau hauei jarraituz:

a)Agiriak erakusgai dauden lekua: Udaletxeko Kontuhartzailetzan.

b) Agiriak aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarki hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Honako hauek egin ditzakete erreklamazioak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak.

Erreklamazioak aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorra. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkez daitezke erreklamazioak.

Erreklamazioen hartzailea: Udalbatza osoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**HIRUGARRENA:** Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Imanol Arrizabalaga,

**Abstentzioa:** Jose Joakin Etxaniz

**Kontrako botoak:** Gaizka Larrañaga

Azkoitia, 2016ko ekainaren 16 an

Kontu-Hartzaileak